

**HGB1E, 3. or.**

[ONTZIA HONDATU ZENEAN]

Ontzia hondatu zenean  
marinelak hala zioen :

Bildur nintzen  
zeren  
lehenengo zalaparta ondoren  
jendea lo  
eta kokolo  
jarri zen.

Prudentea deitzen zen  
jendea jarri zen  
loen  
eta kokoloen.  
Ez zuten konprenitzen  
ez zuten nahi konprenitu  
zergatik ari nintzen  
abarrotsa ateratzen  
zergatik nenbilen  
ixtilua sortzen  
jendeak lorik ez zezan;  
loak hartu ondoren  
urak hartu ez zitza-  
nilen  
hildako ilaran.  
Orduz gero neroni naiz  
ez dudana konprenitzen  
prudente jendea zergatik jarri zitekeen  
loen  
eta kokoloen.